



Ugarte zabala (-a) etxebizitza

Aldacrak:

Ahozkoa: Sabála / Sabáliek

“... la casería rústica titulada Ugarte zabala... situada en la barriada de Okango jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende tres mil quinientos ochenta y cuatro pies cuadrados de planta solar, y la que se compone de una habitación en su piso llano con sus correspondientes cuerdas y divisiones, siendo su construcción de paredes de cal y canto...”

DJE 1/168 (1865)



43° 10' 6"

2° 33' 48"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Baserri honen gainean aurkitu dugun lehen arrasto dokumentala 1767koa da, *Ugarte Zabala* (BAHP, A765/32. or.) eta dokumentazioan beti izen bera mantendu da urteak aurrera egin ahala: *Ugarte-Zabála* (1859, BUA, Nmcr) eta *Ugarte zabala* (1967, BUA, CE). Berriztarren artean, *Sabáliek* ere erabiltzen da gertu dauden hiru etxe horiek aipatzeko, eta *Sabála* erabiltzen da, aldiz, baserri hau identifikatzeko.

XIX. mendeko baserri-etxe handia, sasoiko modan jaso. Goialdean izan zuen altxatze baten ondorioz simetrikotasuna galdu zuen, ardatza aldatu ziotelako. Beheko eta lehenengo solairua atarteko arku dotorearen arabera antolatuta daude. Behekoan, alboetan bina leiho daude; lehenengoan, gainean leiho luzea dauka, inskripzioduna, eta alde bakoitzean, beste hiruna leiho. Bigarren pisuan, ordena-

mendu hori aldatu egiten da, nahiz eta hor ere simetrikoa dirudien, teiltuaren gailurraren arabera ordenatu dutelako.

Porlanezko balkoi luzea dauka (1970ean jatorrian zurezkoa zen balkoia berriztu egin zen), bertara bi leiho luze zabaltzen direlarik, eta aldeetan, beste leiho bana. Hormak margotuta dauka, kontrastea eginez leihoen, arkuaren eta etxe kantalen harlanduekin, baita beheko solairuko bistara atera dioten harlangaitzarekin ere (berritze-lan horiek 1990. urtean egin ziren). Bi isurkiko teiltua dauka. Arku gaineko leiho luzearen ateburuko inskripzioak nork eta noiz berreraiki zuen jakinarazten du: *“UGARTE [gurutzea] ZABALA / REEDIFICADA POR DA MARIA / MARTINA BESOTAGOENA / EN EL AÑO DE 1892”*.

toponimia

Uharte hitz arrunta da euskaraz. Lehen “erreka bien artekoa” adierazten zuen eta orain itsasokoak ere adierazteko erabiltzen da. Izenaren osagaiak ur eta arte dira eta euskalki askotan Uharte bihurtu zen. Bigarren osagaia, zabal, argia da eta ez du aparteko azalpenik behar. Beraz uharte etxe zabala esango genuke beste txikiago baten kontrakoa.